

**2020-2021 IKASTURTEKO ESKOLA-KIROLEKO JARDUERETAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK
ETA PREBENTZIO-NEURRIAK EZAGUTZEKO, ONARTZEKO ETA HAIKIN KONPROMETITZEKO
DOKUMENTUA AITAK/AMAK EDO TUTOREAK**

_____ jaunak/andreak, NAN/AIZ _____
duenak, bere izenean eta _____ interesdunaren
(adingabearen) aita/ama/tutore gisa,

HONAKOA ADIERAZTEN DUT:

- Jaso eta irakurri dut jardueraren ardura duen erakundeak COVID-19ari aurre egiteko prestatu duen Prebentzio eta Jarduketa Protokoloa, eta badakit bertan zer ezartzen den.
- Hitzematen dut kirol-erakundearekin lankidetzan jardungo dudala protokoloan ezarritako neurriak, bereziki nire ardurapean dudan seme-alaba edo adingabea kontzientziatzearekin eta sensibiltzatzearekin zerikusia dutenak, betetzeko, prebentzio- eta higiene-neurriak hartzeko bere erantzukizun indibidualari dagokionez.
- Saio, entrenamendu edo lehiaketa bakoitzaren aurretik egiaztatuko dut nire ardurapean dudan seme-alabaren edo adingabearen osasun-egoera, eta COVID-19ari lotuta egon daitezkeen sintoma ohikoenetako bat badu, adibidez, 37°tik gorako sukarra, hotzikara, eztula, airea falta denaren sentsazioa, usaimena eta dastamena galtzea, ezarritako mina, giharretako minak, buruko mina, ahulezia **oro har**, beherakoa edo gorakoa, ez da jarduerara joango. Horrez gainera, berehala emango diot egoera horren berri kirolerakundeako osasun-arduradunari eta dagokion osasun-zentroari.
- Era berean, kirol-erakundeako osasun-arduradunari jakitera emango diot familiako bizikidetzak unitateko pertsona bat (kirola egiten duen adingabea bera edo beste pertsona bat) COVID-19a diagnostikatu diotelako isolatuta badago edo COVID-19aren sintomak dituen edo COVID-19a diagnostikatu dioten pertsona batekin harreman estua izateagatik etxean berrogeialdia betetzen ari bada.
- Baimena ematen dut, baldin eta COVID-19a diagnostikatutako pertsonen kontaktuak aurkitzeko osasun-agintariek eskatzen badute, erakundeak nirekin edo tutorea den beste pertsona batekin harremanetan jartzeko erregistratuta dituen datu pertsonalak emateko.
COVID-19 BATZORDE BEREZIA – ESKOLA KIROLAREN EUSKAL BATZORDEA 56
- Nire ardurapean dudan seme-alaba edo adingabea ez dago osasun-agintariek ezarritako arrisku-talderen batean, edo, hala balitz, egoera horren berri emango diot kirolerakundeari jarduerari hasiera eman aurretik, eta, kasu horretan, nire erantzukizunpean parte hartuko du jardueran.
- Onartzen ditut kirol-erakundeak jardueretan parte hartzeko ezarritako baldintzak eta, ondorioz, baimena ematen diot nire ardurapean dudan seme-alabari edo adingabeari 2020-2021 ikasturteko eskola-kiroleko programan parte hartzeko.

_____ (e)n, _____ (e)ko _____ ren _____ (e)an

Izenpetua

N.A.N.sinatzen duen pertsonak